



# EUSKARA EZ DA KULTURA

JOXE AZURMENDI

Oso gaizki hitzegitea da, «euskara ez da kultura» esate hori. Esan nahi dut, euskararen arazoa kultur—arazo soila baino gehiago dela: politikoa da batez ere. Eta politikoa dela esanez, ez dut esan nahi euskararen arazoan planteamendu alderdikorrek, partidistak, egin behar direnik (esate baterako, abertzaleok bakarrik onar genitzakeen planteamenduak). Komeni ere seguruenik ez da komeni. Egiterik ere ez dago seguruenik. «Estatu arazoa» dela, esan beharko genuke. Nazio arazoa da, zehazkiago.

## Historiari bueltaka

Iruditzen zait, planteamendu ez—partidistak egin nahi direla, baina arrazonamendu partidistak erabiliz. Planteamendu historizista—kulturalistak, ezin esango dugu berez Alderdi bati bakarrik dagozkionak direla, bai ordea, Alderdi baten izpirituari eta tradizioei hobeto dagozkiela, abertzaleoi hain zuzen, askoz gutxiago PSOeri esate baterako.

Azken finean, aspergarri bezain antzuak eta eskolastikoak dira, maiz erabiltzen ditugun hauzi batzuk: euskaldunak ote diren Errioxa eta Valmaseda, noiz erromanizatu ote ziren Erribera edo Enkartazioak, etab. Jakingarria, noski, historia aldetik. Baina planteamendu faltsoa da holako arazoak, edo hein horretako datoak, argumentu harrobi-

tarako aprobeztatu nahi izatea, abertzaletasunaren edo euskararen alde. Historiak edozertarakotsu adina argumentu eman lezake, eskatzen bazaio: euskararen alde nahiz kontra, abertzaletasunaren alde nahiz kontra. Historiari holakorik eskatzea da itxuragabekoa.

Askotan pentsatzen dut, zer arraio inporta behar dioten arazo guzti horiek, lehendik abertzale ez denari: bizantinismo hutsa iruditzen behar zaizkio. Klase borrokan begi bietaraino sartuta dabilen langileari adibidez. Hori ez dabil historia desenterratzen. Egin egiten dabil.

## Identitate bila

Abertzaleari bai. Hau da, proiektu bat baduenak: Euskadi askatzea, edo birreuskalduntzea, etab., hots, herri edo nazio kontzientzia baduenak, herri eta nazio identitatea bilatzen du, eta orduan historia inportantea da, gorabehera guzti horiek badute beren sentidoa, a posteriori. Nola baiteko «argumentuak» ere izan litezke. Baina, esan bezala, kontzientzia (abertzale) hura presuposatuz gero bakarrik.

Problema ez bait da birreuskalduntzearen premia eta sentidoa abertzaleari esplikatzeko. Problema, abertzale ez denari, edo ez dela uste duenari, horrek daukan sentidoa esplikatzeko da,

harentzat ere badaukan sentidoa, bera ere euskararen alde enplegadadin eta lan hori sostengadegan.

## Planteamendu sozial eta politikoa

Alderdien gaitetiko planteamendua nahi duenak, Alderdien gaitetiko arrazonamenduak erabili behar ditu.

Oso Alderdi batzuenak eta kasi esklusiboak diren arrazonamendu modu batzuen gaitetikoak.

PSOeren edo PCEn tradizioan dagoen bati, nik uste dut hizkera ulerkaitza egin behar zaiola, maiz erabiltzen dugun arrazonatzeko modu historizista—kulturalista guztia. Eta arrazoirik falta ere ez zaiola falta.

Agian hobeto ulertuko ligitete, guk geuk hobeto azalduko bagenu, gure arrazoiak (euskararen aldeko, birreuskalduntzeko, arrazoiak) ez daudela prehistorian, historian baino: funtsezko arrazoiak, egin nahi dugun euskal gizarte libre eta solidarea dela alegia. Proiektu sozial global batekin.

Hau da, planteamendu guztien orientazioa aldatu. Georari begira, ez antzinateari. Eta sozialki oinarrituz, ez historiko—kulturaliki.